

PASAIA. Donibane, kultura. Itsas Mendi liburutegia, etzi, zabalik. Herenegun inauguratu zuten, baina behin behineko egoitza da oraindik

Urko Etxebeste

Etzi zabalduko dute Donibaneko liburutegia, Itsas Mendi liburutegia. 17:00etatik, 19:45era, astegunetan egongo da zabalik. Marga Anzuela izango da liburuzaina. Behin-betiko egoitzaren zain, Donibabe kaleko 28. zenbakian, sanjuandarren aspaldiko nahia: Itsas Mendi biblioteka. Herenegun arratsean inauguratu zuten. Bertan, sanjuandar asko eta Donibaneko eragileetako nahiz Pasaia alderdi politikoetako ordezkariak egon ziren. Liburutegiaren egitasmoa egi bihurtzeko Itsas Mendik egin duen lana goraipatu bestetik ezin dut egin. Baita Donibaneko Bibliotekaren Aldeko Batzordekoen ekarpena ere: Angel, Arantxa, Maika, Imanol, Marga, Patxi, Kontxi, Josu. Hauek egindako lanagatik ez balitz, ez legoke liburutegirik Donibanen; hala hasi zuen Izaskun Gomez Pasaia alkateak bere hitzaldia.

Azken 12 urtetan liburuak gorde izana eta hauek zeuden tokitik liburutegira mugitu izana goraipatu zuen Gomezek. Herritarren lanak eta Udalaren konpromioak bat egin dute egitasmo honetan, esan zuen.

Margari Etxarri Itsas Mendi Kultur eta Kirol Elkarteko lehendakaria pozarren zegoen herenegun. Elkarteko bazkide izan edo ez, eskuzabaltasunez liburutegiaren alde lan egin duten guztiak eskertu nahi ditut, baina bereziki Xabier Berzosa, Joxan Otero eta Migel Artola, adierazi zuen Etxarrik.

Donibaneko Liburutegiaren Aldeko Batzordearen lana ez zuen ahaztu Itsas Mendiko lehendakariak, eta aurrerantzean liburutegian antolatuko diren jardueretan laguntzeko prest egongo direla jakinarazi zuen. Imanol Irizarren laguntza gaur egun Renon (Nevada, AEB) dago eta garai ezberdinetan Udalean liburutegia gauzatzeko ahalegina egin dutenak gogoan izan zituen Margari Etxarrik. Udala da orain liburutegi hau indartzeko eta bultzatzeko ardura duena. Gu, beti laguntzeko prest egongo gara, ahal den eperik laburrenean behin-betiko kokapena aurkitzeko, erantsi zuen.